

e-kultura eta e-irakaskuntza: egungo egoera eta edukiak eraikitzeko erreminta eta estrategiak. (Kepa Sarasola eta Luistxo Fernandez)

Informazio- eta komunikazio-teknologia berriek kultura, hizkuntza eta heziketa lantzeko bide berriak sortu dituzte. Hizkuntza eta kultura txikietan mugitzen garenok jakin behar dugu bide berri horiek aztertzen, gero interesatzen zaizkigun neurrian erabili ahal izateko. Hitzaldi honetan mundu mailan interesgarri diren eta oraindik gurean landu gabe dauden esperientzia berriak aurkeztu nahi ditugu. Epe erdirako proiektuak diseinatzeko orduan erreferentzia izan daitezkeela uste dugu.

Aurkeztuko ditugun ideiez gain beste batzuk ere badirela jakin badakigunez, espero ditugu bilkura honetako partaideen iritziak eta ideia berriak, denen artean proiektu eta ekinbide berriak martxan jarri ahal izateko. Esate baterako, artearen gaineko erreferentziak, proiektu eta ekintzarik ez dugu landu; hori ere kultura da, baina txostengileak ez gara adituak horretan. Horra hor bildu ditugun ideiak:

1) e-edukiak biltzen dituzten **biblioteka nazionalak**. Biblioteka Nazional zenbait, eta beste erakunde batzuk ere, ari dira alor honetan neurriak hartzen. 2002ko urtarrilean nazioarteko bilkura bat egin zen horren inguruan (<http://www.nla.gov.au/ntwkpubs/gw/56/p08a01.htm>), partaideak hauek izan zirela: the National Diet Library, the Library of Congress, the Royal Library of Denmark and the National Library of Australia, Brewster Kahle of the Internet Archive Bestek beste, nahiko aurreratuta dago Danimarkako esperientzia(www.netarchive.dk/). Euskal Herrian ordea, gutxi eduki eta gainera nabarmen egin dugu atzera azkenaldi honetan: Egunkariak online zeukan bere hemeroteca guztia, 1999tik honainoko artikuluguztiak, galdu ditugu. ... Makina fisikoki ostu, eta akabo.

2) Hizkuntza txiki batean erabil daitezkeen **konputagailu-programen bilguneak**. Katalanezko softwarearen katalogoa biltzen ditu www.softcatala.org webguneak. Bertan ikus daiteke zer software erabil daitezkeen katalanez, nola lortu eta gainera hainbat programa bertatik jaso daitezke. Produktu sailkapena ere ikus daiteke bertan zenbat bisitarik jaitsi dituztenaren arabera. SoftKat, UEUK berak antolatu duen Euskarazko Softwarearen Katalogoa (www.ueu.org/softkat), bide horretatik doa.

3) Software librea.

Katalunian, Extremaduran etya hainbat herrialdetan administrazio publikoan software librea erabiltzearen alde kanpainak antolatu dira (www.softcatala.org/admpub). Hemen ere ahalegina egin beharko genuke software librearen erabileraren alde, bai instituzioetan, bai hedabide publikoetan, baita erabiltzaile arrunten aldetik ere. Ez da nahikoa Linux euskaraz eskuragarri izatea, gero denon artean inolako kanpainarik egiten ez badugu horren berri emateko eta jendeari bere ordenadorean ezartzeko (eskoletan, instituzioetan, ...). Mundu mailan eta beste hizkuntzetarako dagoen software librearen berri modu errazean jaso ahal izateko interneteko *mirror* edo ispilu bat ere sortu beharko litzateke.

4) **Corpus** bilketa. Testu edo hizketa-grabaketa andana duten bildumak dira corpusak dei ditzakegunak eta ezaugarri hauek dituzte: eredugarriak, adierazgarriak, neurri

mugatukoak eta makinan irakurtzeko moduan jarriak. Erreferentzia estandarra hizkuntza lantzeko. Informazioaren gizaratean, hizkuntza batek duen garrantzia neurtu nahi denean, aplikazioak garatzeko dituen baliabide linguistikoak aztertzen dira gaur egun. Errekurtso hauen artean, corpus handien garapena lehenetariko helburua izan ohi da. Corpus idatzien adibide gisa aipa daiteke *British National Corpus*-a. Honek 4000 testuzati ditu, eta denera 100 milioi hitz. (info.ox.ac.uk/bnc). UZEIk egin eta Euskaltzaindiak eskaintzen duen XX. Mendeko Corpusean 5 milioi hitz bildu dira. (www.euskaracorpUSA.net/XXmendea).

5) **Hizkuntzaren tratamendu automatikorako** softwarea. Ikus hizkuntzaren tratamendu automatikorako softwarearen berri ematen duten katalogo hauetan: Natural Language Software Registry (registry.dfki.de) eta ELRA (The European Language Resources Association, www.icp.inpg.fr/ELRA/catalog.html).

Zenbait produktu kaleratu dira orain arte euskararako, baina ingelesarekin lortu denarekin konparatuta oso maila apalean gaude oraindik. Kaleratu diren produktu interesgarrienak Eusko Jaurlaritzaren eskutik <http://www.euskadi.net/euskara> webgunean zenbait produktu lor daitezke: Euskararen zuzentzaile ortografikoa, Hiztegiak (Elhuyar Hiztegia, Morris Hiztegia, Hiztegia 3000, Sinonimoen Hiztegia eta Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa), Euskalterm, Kapsula eta Panda Titanium Antibirusa.

6) **Ondare digital publikoa gordetzeko eta hedatzeko modu egokiak** ziurtatu behar dira. Horretarako, GNU Free Documentation License (GNU FDL, <http://www.gnu.org/copyleft/fdl.html>) aztertu beharreko erreferentzia da.

Herri-ondarea, jabetza publikoa, erabiltzeko eskubidea dugu herritarrok, eta hortaz, kultur edukien (eta baita korpus linguistikoaren eta beste tresna batzuen) biltegi digital publikoak egiten badira, kontsultarako moduak eskaini zaizkigu herritarroi.

Kopia librea, hala ere, babes batzuekin egin beharko litzateke. Batez ere, ondare digital horri eman nahi zaion erabilerari dagokionez. Babes horixe da, hain zuzen, GNU FDL lizentziak (edo antzeko mekanismo batek) eman lezakeena: laburbilduz, ondare digital publikoaren kopia egiten duenak, nahi bezala erabil dezake materiala, bere gisa eraldatu eta hornitu ere bai, betiere, sortzen dituen kopia eraldatuak ere lizentzia libre berberarekin banatzen baditu: ondare publikoa, era horretan, murriztu barik, biderkatu egiten da, agente pribatuek (edo beste era batekoek) ondare digital publikoaren bertsio berriak sortuz gero, haiek ere, definizioz, ondare publiko izango direlako.

7) **Euskaraz urrundik eta interneten bidez ikasteko aukera.**

Eusko Ikaskuntza, UPV-EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko unibertsitatea internet bidez eskaintzen dituzte egun zenbait ikastaro euskaraz eta erdaraz. Hala ere, egun dagoen eskaintza oso murrizta da, ez dago loturarik haien artean, falta da etorkizunerako lana antolatzeke plana. Kataluniako UOC unibertsitateak egindakoa aintzat har genezake horretan.

UOC unibertsitatea (www.uoc.edu, Universitat Oberta de Catalunya) urruneko irakaskuntza eskaintzen du katalanez, bai unibertsitate mailan bai etengabeko prestakuntza arloan ere. Katalanez ikasten duten 16.000 ikasle ditu, eta 16 titulu homologatu ematen ditu.